

GAZTELUGATXEKO SAN JUAN.

Udan, Bermeoko turismo bulegotik pasatzen direnen %95ek Gaztelugatxez galdetzen du. Euskal Herri osoan oso ezaguna den 'argazkia' da: ederra, ikusgarria, bakarra.

Baina, **zelan lotu Bermeogaz?**

Lotura hori bi modutara uler dezakegu.

Batetik, Gaztelugatxe = Bermeo ideia-lotura grabatzea bisitariaren memorian.

Bestetik, Gaztelugatxera doazenek Bermeoko herrigunea bisita dezaten lortzea, beste nonbaitera alde egin beharrean.

ERREPIDETIK.

Bisitari gehienek aukera izan arren, bide traketsa da, bisitariak haserretzeraino.

Erakundeek inbertsioa eskatzen du ganorazko obrak egin daitezkeen (obretan bidegorria aurreikusiz gero, hobeto). Autoz, Bermeo albo batera utzi eta Bakiora edo Gernikara egingo du bisitariak, amuren bat ez badu.

Errepidea hobetu behar da, baina, hori gertatu aurretik, autoen masifikazio posibleak ekiditeko zer plan? Lanzaderena aukera bat da. Itsasotik joatearena beste bat. Hau da, bidea hobetu bai, baina auto kopurua mugatu ere bai.

Idea (agian zoroa): **Lanzaderak, taxi-gida elektrikoak.** Pergolan aparkatu (autokarabanak), eta Gaztelugatxe oineraino iritsiko zen ibilgailu bat elektriko bat-edo.

ITSASOTIK. Gutxi esplotatu den aukera. Ekimen pribatuaren esku legoke, Hegaluzek egiteko asmoa duen bezala. Bermeogaz lotura handia (ezinbestekoa), portua bailuke abiapuntu eta helmuga, eta Bermeoren ezaugarri bereizgarriekin lotura duelako: itsasoa, nabigazioa, portuko poteoa... **Galdera:** enbarkazio pribatuek bisitak antolatzekeko lizentziak Udalak kontrolatu/inzentibatu ahal ditu?

Idea. Gaztelugatxe = Bermeo ideia indartzeko kanpora begira, egingarria eta oso eraginkorra izan daitekeen ekimen bat: San Juan belaontzi estropada. Galerna elkarteko bategaz berba egiten egon naiz, eta oso ideia ona iruditu zaio, eta komentatuko duela. Aurten egiteko garaiz gabiltzala dio, ekainaren 23an (San Juan bizperan, domeka).

Zer lortzen da? Madalenek Izarogaz lortzen dutena, irla Bermeorena dela zabaltzea. Hedabideak erakartzea da helburuetako bat, estropada hori promozionatzekoan Gaztelugatxe Bermeogaz lotuko dutelako. Madalenetan bezala, hedabideak eroango dituen ontzi bat prestatu behar da, eta teilaren erritualaren partez, gaztelugatxe aurreko hiru bueltak (eta esaldiren bat?). Gainera, Bakiok ezin du ezer egin, ez baitauka porturik; Bermeok ez luke konpetentziarik (tira, igual mundakarren bat tematuko da!).

MENDITIK. Ibilbide ederra da, baina ezezaguna. Bisitarien gutxiengoaren aukera.

Idea: Bermeoko esakera bat erabiltzea ibilbideak promozionatzeko eslogan modura. "Bideak egiten" (*bidikitxen*).